



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EBAZPENA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, 2024AN UPV/EHU IXTEKO HAINBAT ALDI EZARTZEN DITUENA

EHU2030 agendaren Planeta campusa ekimenean jasota dagoenez, Euskal Herriko Unibertsitateak garapen jasangarria, inklusioa eta konpromiso soziala sustatzen ditu, Garapen Iraunkorraren inguruko elkarlanari bultzada emanaz (uraren kontsumoa, energia, hondakinen kudeaketa eta garraioa).

Erakundeak 2022an hasitako oporraldietan ixteko politikari eusten dio, kontsumoak murrizteko, gastuei eusteko eta zerbitzuak arrazionalizatzeko.

2022ko abenduaren 15eko bilkuran Gobernu Kontseiluak onartutako 2023/2024 egutegi akademikoa eta 2023ko azaroaren 2ko Ebazpena, UPV/EHUko gerentearena, 2024rako teknikari, kudeaketa eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (aurrerantzean, TEKAZEL) lanaldiari, ordutegi-kontrolari, oporrei eta baimenei buruzko zirkularra onartzen duena kontuan hartuta, eta egitura eta unitate akademiko eta administratiboetako arduradunei eta unibertsitate honetan zerbitzuak ematen dituzten enplegatu publikoen ordezkariari kontsultak egin ondoren,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Itxiera-aldiak.

UPV/EHUren itxiera-aldiak honako hauek izango dira:

- A) 2024ko apirilaren 2tik 5era, biak barne.
- B) Araba: 2024ko abuztuaren 6tik 16ra, biak barne.
Bizkaia: 2024ko abuztuaren 12tik 22ra, biak barne.
Gipuzkoa: 2024ko abuztuaren 5etik 16ra, biak barne.

Bigarrena.- Itxieren irismena.

Hiru campusetako bakoitzean, instalazio eta eraikin guztiak itxiko dira, baita horietan ematen diren zerbitzuak ere. Hortaz, itxita egongo dira eraikinetako gune guztiak eta bertan ezingo da jarduerarik gauzatu, **salbu** hurrengo ebazpen-zatian adierazitakoak, horietan, unibertsitate-txartelarekin sartu ahal izango da horretarako prestatutako atetik, 9: 00etatik 17: 00etara

Bertan behera geratuko dira programatutako jarduera guztiak, probak eta oposizioak barne. Zentro eta zerbitzuetako arduradunek itxieraren berri emango diete Unibertsitateko guneetan jarduerak aurreikusita dituzten pertsona edo erakundeak.

Itxiera-aldian, berokuntza- eta klimatizazio-zerbitzuak deskonektatuta egongo dira eta eraikin bakoitzaren itxiera-gidetan jasotzen diren sistema eta ekipu kritikoak soilik egongo dira piztuta.

Egoitza Elektronikoa martxan egongo da.



Hirugarrena.- Funtsezko zerbitzuak.

Lan ordutegian funtzionamenduan egongo diren zerbitzuak honako hauek izango dira:

- a. **Erregistroa:** adierazitako datetan eraikinak itxita dauden bitartean, UPV/EHUren erregistro elektronikoa aurkeztu ahal izango dira eskabideak, helbide honetan: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Horretarako, UPV/EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen erabiltzailearen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria erabili beharko dira.

Esandako datetan itxita ez dauden UPV/EHUko erregistro-arloko laguntza-bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabideak, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztu ahal izango dira.

- b. **Laborategiak:** Bigarren ebazpen-zatian ezarritakoaren ondorioz, bete beharreko zerbitzu kritikoak (zerbitzu kritikotzat hartzen dira ikerketa-proiektuen kronograman planifikatutako saiakuntza guztiak) bakarrik egongo dira martxan.
- c. **Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia**
- d. UPV/EHUK egiturazko zerbitzuak emango ditu beharrezkoa den guztietan, hala nola IKTak, nominak eta gizarte-segurantza,...

Gainera, 9:00etatik 17:00etararteko ordutegitik kanpo, langileren baten (TEKAZEL edo IIP) laguntza puntuala behar dela uste duten unitateetako arduradunek izendatuko dituzte langileok, behar bezala justifikatuta. Gerentziak edo Irakasle-Ikertzaileen arloko Errektoreordetzak emango du baimena, hala badagokio.

Edozein kasutan, IIP edo TEKAZELeko langileek unibertsitate-txartela erabili ahal izango dute dagokion eraikinera sartzeko.

TEKAZELen kasuan, Euskal Herriko Unibertsitateko gerentzearen 2023ko azaroaren 2ko Ebazpenaren 5.2. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da. Ebazpen horren bidez, 2024rako teknikari, kudeaketa eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldiaren, ordutegi-kontrolaren, oporren eta baimenen zirkularra onartzen da.

Laugarrena.-1. ebazpen-zatian aipatutako itxiera-aldietan, langileak 9:00etatik 17:00etara horretarako prestatutako atearen bidez sartuko dira, salbuespenez, unibertsitate-txartelarekin, eta, UPV/EHUko Gerentziaren 2015eko ekainaren 1eko Ebazpenean aurreikusitakoarekin bat etorriz (ebazpen horren bidez, Lantokiaren irekiera-ordutegitik kanpoko larrialdiko prebentzio-neurri osagarriei buruzko prozedura argitaratzen da, Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren Prozeduren Eskuliburuko larrialdiak kudeatzeari buruzko 5. prozeduraren V. eranskinean jaso), gainerako ordutegian.

Ondorio horietarako eta, edonola ere, salbuespenezko sarbide horretarako eskabide normalizatuak **2024ko martxoaren 20a baino lehen** egin eta bidali beharko dira, apirilko itxieraren kasuan eta abuztuko itxieraren kasuan **campus**



bakoitza ixteko epea baino 15 egun lehenago. Epez kanpoko eskaerei ez zaie erantzungo.

Bostgarrena.- UPV/EHUren estatutuak onartzen dituen otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren 160. artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Horren aurka, beraz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok errektoreari, jakinarazten denetik hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean.

Seigarrena.- Ebazpen hau UPV/EHUren webgunean argitaratuko da.

Leioan, 2024ko martxoaren 6an

Eva Ferreira García
UPV/EHUko errektorea